

JOSE MARIA ETXEBARRIA. — *Euskal dialektologiarako tes-  
to eta ariketak*. 21 × 15 zm., 297 orr. eta mapen orri bat.  
El Carmen Argitaldaria. Gasteiz, 1983.

Liburu honekin euskal dialektologiaren azterketan beste aurrerakada bat ematen da. Baina, liburu honekin, aurrerakada bat baino hobea dena, zera da, linguistika arloko eskolaren adar berezi bat sortzeko urrats garrantzitsua eskaintzen digula esango nuke.

L. L. Bonaparte printzea izan zen gure euskalkiak mugatu zituena, joan zen mendearen erdian, garai haietan dialektologiarako ezagutzen ziren metodoekin. Geroztik ere, lan mono-

grafikoetatik (herri edo ibar soil batera mugatzen diren lanak esan nahi dut) aparte, beste ikerketa orokor anitz bada, liburu honen bibliografian bertan adierazten denez. Lagintza hontan, Euskal Herri osoari begira, ahaztu ezinak dira, besteak beste, 1913an Trebitsch-en lana, gaur egun Viena-ko Fonogrammar-chiv deritzan agiritegian dagoena (bere kopia bat bada Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan), Euskaltzaindiak berak, Azkueren zuzendaritzapean elkarlanean burutu zuen Erizkizundi Irukoitza eta Pedro Yrizarrek oraintsu egina.

Baina, liburu hontan, J. M. Etxebarriak, azterketarako ikuspegi berri bat eskaintzen digu. Hitz-laxozko testuak han-hemen-diko liburu eta aldizkarietatik bilduaz gainera inoiz argitaragabeko zati asko ere biltzen ditu dialektologian ari diren ikasleentzat ariketagai, aurrekaldean bakoitzaren nondikakoaren fixta jarriz, non, nogandik, nork, noiz eta non argitaratu zen, edo nork utzi zion transkribapena, Jose Mari ber-berak jasoa ez denean. Egilea bera magnetofonoz bilketa asko egina bait da, eta hortatiko esperientziak aprobetxatzen ditu adierazpenetan. Benetan liburu baliagarria, eta era hortakorik bakarra euskarren arloan.

Erizkizundi Irukoitzeko zenbait dato ere aurkitzen dira. Teoriaren barnean dialektologia geografikoa zertan datzan, egiturazkoa eta historiazkoa. Sinkroniatik diakroniara estrukturak erakutsiz.

Liburuan barna dituen diru zati edo adierazpen nagusiak: dialektologia lanetarako oinarrizko teoria, testu azterketarako arauak eta euskaldien testu adierazleak. Ikusten denez, Jose Mari Etxebarriak berak bere irakaslegoan erabiltzen dituen teknikak eta materialak dira, beste edornorrenzat ere probe-txugarri direnak.

Halako lanak noiznahi ez dira agertzen eta gure zorionik kartsuenak egileari.

J. S. M.